GURE KABIA

ETXEGINTZA GIDA

Busturialdea [2022/04]

LEA-ARTIBAI, MUTRIKU ETA BUSTURIALDEKO HITZA

ERAIKUNTZA · DISEINUA · DEKORAZIOA

HIZER STUDIO

Errehabilitazioak
Teilatuak
Fatxadak
Eraberritze lanak
Barne diseinua
Gremioen koordinazioa

Sukaldeak
Bainugelak
Materialak
Altzariak
Armairuak
Dekorazioa

HIZER
CONSTRUCCIÓN • DISEÑO • DECORACIÓN
STUDIO

"Imagina badezakezu, eraiki genezake"

info@hizerstudio.com
94 436 02 36 · 655 749 538

· **HIZER STUDIO** ·

Iparragirre 1
GERNIKA-LUMO

GURE KABIA

ETXEGINTZA GIDA

Argitaratzailea: Lea-Artibaialdeko Hedabideak
Helbidea:
Markina-Xemein
Arretxinaga kalea 1
tel.: 94-684 44 36 • lh@hitza.eus
Gernika-Lumo
Elbira Iturri kalea z/g
tel.: 94-627 10 85 • busturialdea@hitza.eus

www.lea-artibaietamutriku.hitza.eus
www.busturialdea.hitza.eus

Testuak eta publizitatea: **HITZA/ 11barri**
Diseinua, maketazioa eta testuak: **11barri**
Argazkiak:
Egurrola, Gonzalez, DK Studioa, Pixabay eta Pexels.

www.geureanbai.eus

bai euskarari

NATURAREN BIZITASUNA

Bizidunen urtea da 2022a, eta gizakiaren eta naturaren arteko loturak garrantzi berezia duen urtea izanik, dekorazio joerak ere naturara garamatzate. Material naturalak eta organikoak dekorazio joera dira etxebizitzei bizitza emateko, argi naturala, landareak... Kanpoaldea eta barrua esku-eskutik joango dira, egunerokotasuna ederrago egiteko. Ehunka aukera aurkituko ditugu gure etxebizitzari itxura guztiz aldatzeko edo beste ukitu bat emateko... Gida honetan etxebizitza nahieran jartzeko eta bizitzeko azken joerak jaso ditu HITZAk, eskualdeko dekorazio, diseinu eta etxegintza sektorean lan egiten duten profesionalen laguntzarekin.

Gaiak:

8 VERY PERI: Pantoneren 2022ko kolorea
10 FORMAK: Kurbak datoz
11 ALFONBRAK: Bigarren azala
12 SUKALDEAK: Espazio zabalen alde
14 TERRAZA ETA BALKOIAK: Aire libreko begiratokiak
16 EGONGELAK: 2022an, berdea
18 LANERAKO ESPAZIOA: Etxean ere eroso lan egiteko
20 GREMIOAK: Eraberritzeetan kontuan hartu beharrekoak
22 LOGELAK: Atsedenerako gelak
24 ENERGIA KONTSUMOA: Gomendioak, aurrezteko
27 MATERIALAK: Sentitzeko eginak
30 BAINUGELAK: Espazio erakargarri
34 OSAGARRIAK: Txikiak, izaera handikoak

Enpresen aurkibidea:

Arkitektuak	
ZARRABEITIA	29
MDK	13

Diseinua eta dekorazioa	
AMAIKA [Barne diseinua]	25
GAKOAK [Dekorazioa eta barne diseinua]	21
GONZALEZ DEKORAZIOA [Dekorazioa]	19
HIZER [Dekorazioa eta barne diseinua]	2
NAGORE ZUBILLAGA [Barne diseinua]	26
NORA [Barne diseinua]	33
OLAETA [Diseinua]	28
ZULUETA [Altzariak]	17

Energia	
EKOLEDS [Instalazio elketrikoak]	23

Eraikuntza	
ARTETXU [Eraikuntza]	20
EGURROLA [Eraikuntza]	9
IZAGIRRE [Eraikuntza]	10
ORUE [Eraikuntza]	6-7

Gremioak	
INOXKEA [Aroztegi metalikoa]	5
ITURBERO [Berogintza-iturgintza]	30

Higiezinak	
HIRULUGER [Higiezinak]	35
SORKUNDE FINKAK [Higiezinak]	35

Koltxoiak	
BED'S [Koltxoiak]	11

Sukaldeak eta bainugelak	
ARRIANDI [Sukaldeak]	34
LIS [Bainugelak]	31
URALDI [Bainu-osagarriak]	32
URRESTI [Materiala -Keramika]	15

orue

arkitektura - eraikuntza - barne diseinua - dekorazioa

946 128 293 - 647 840 332 - 688 608 511
www.construccionesorue.com
info@oruestudio.com

Very peri





IZAERA ALAIKO KOLOREA

Very Peri (17-3938) izeneko kolore berria da 2022rako Pantonek aukeratutako kolorea. Periwinkle urdinaren tonu dinamikoa, gorri purpura tonu biziarekin, urdinaren fidelta-suna eta koherentzia gorriaren energia eta ilu-sioa nahasten dituena.

Tonu urdinen ezaugarriak biltzen ditu eta, era berean, ñabardura gorri morexkak izateak, izaera alaia ematen dio Pantone 17-3938 Very Pe-riri. Modernitate berri bat iradokitzen du, barru-ko espazioei freskotasun ludiko bat ekartzen die eta ezohiko kolore konbinazioen bidez bi-zitza ematen du. Tonu polifazetikoa da, sormen espiritua suspertzen duena eta, beraz, familia zein laneko espazioak apaintzeko egokia da.

Hormak koloreztatzeko edo altzarietan edo etxeko dekorazioan arreta jartzeko oso kolore erakargarria da. Erraza da maitemintzea, baina kontuz gehiegikeriekin! Pantonek 2022 ur-teko kolore gisa proposatutako kolore hau oso deigarria da, eta laster nekatu nahi ez baduzu, dosi txikietan erabili beharko duzu.

Horma-paperetan erabil daiteke, espazio komun batean azterketa eremua mugatzeko, baina baita egongeletan eta logeletan integra-tzeko ere. Besaulkiak, mahaiak, hormako ele-mentu apaingarriak edo loreontziak... Xeheta-sunak txikiak izanik ere, nabarmendu egiten dira.

Nola ez, koloreak beste aukera daude etxeko paretak eta osagarriak kolorez janzteko: zuria, hautsitako zuria, grisak –gris urdinxka, gris menta, gris argia, gris iluna–, arrosa, arrosa zurbi-la, arrosa laranja, laranja, berdea, berde iluna, klein urdina, itsas urdina, turkesa, burdeos, pur-pura, horia eta kolore pastelak ere dekoraziora-ko joera dira 2022an.

Era guztietako eraikuntza-obrak
egiten dituen enpresa gara

EGURROLA
ERAIKUNTZAK



Neurrira egindako **aholkularitza teknikoa**.

Fida zaitezte sektore honetan
dugun ezagutzaz eta esperientzia zabalaz.

Bekoibarra, 35.
1. solairua.
9. Depart
GERNIKA-LUMO

egurrola.eus

696 400 486 / 688 681 539
info@egurrola.eus
egurrola_eraikuntzak

Kurbak datoz

Wavy indarrez sartu da 2022ko dekorazio joeren artean. Apurtzailea, dibertigarria eta lotsagabea, horrelakoa da etxebizitza bihurgune eta tolesturaz jantziko duen estiloa.

Bihurguneak bueltan datoz. Indartsu sartu dira 2022ko dekorazio joeretan, jostalari, ausart, aske, lotsagabe... Wavy estiloak forma bihurriak proposatzen dizkigu, aparteko espazioak sortzeko.

1970eko hamarkadara jauzi egitera garamatza joera honek; lerro zuzenak atzean uzteko gonbidapena egiten digu, eta horren lekuan, figura geometriko kurboak eta diseinu ausartak planteatzen ditu, tonu distiratsuz eta pastel kolorez jantzita. Moda ikusteko ikuspuntu berri bat eta, era berean, ikuspuntu zaharretik begiratzeko proposamena dakarkigu.

Wavy estiloa gustuko dutenek aukera erradikalenen aldeko apustua egingo dute seguru; geletako altzari handiak kurbaz betetzera gonbidatzen dute aukera ausartenek. Era horretan, angelu zuzenetan amaitzen diren altzarien lekuan, bihurgunez amaitutakoak aurkituko ditugu, espazio ez hain zurrunak sortuz eta energiari bide emanez. Altzari erosoekin egiten du, gainera, sofa eta besaulki bigunekin, pufen ohiko diseinuetara gerturatuz eta diseinu borobilduak aukeratuta, egongela eta logeletarako emaitza erlaxagarri eta erosoagoak lortuz.

OSAGARRIETAN ERE BAI

Osagarrietan sartu ahalko dugu hobetoen dekorazio joera hau, bereziki gehiegirik ez nabaritzeko moduan egin nahi badugu. Gero eta gehiagotan aurkitzen dugu artisau erako eta zeramikazko pitxerretan eta loreontzietan, formak gero eta organikoagoak diren piezetan, alegia.

Alfonbretan ere lur hartu du wavyk. Forma zuzenei uhinek hartu diete lekua, borobilduz, tolestuz. Ispiluek ere diseinu irregularren aldeko apustua egiten dute, marko dibertigarriekin. Eta ezin ahaztu kandelak, gero eta diseinu nahasi, korapilatsu eta nahasiagoekin.

IZAGIRRE S.A.
ERAIKUNTZARAKO MATERIALEAK
· MANPOSTERIARAKO LAJAK
· BAINUKO ALTZARIAK ETA AZULEJOAK
· HARRIAK
COBERT uralita · LACUNZA · 3Bikain · IMERYS Toiture · Monier · TERREAL TERRACOTTA · imiges ESKATZAK · PLADUR · VELUX · Hergóm ESKATZAK · Sika · URALITA · ARALITA · ARALITA · Onduline
bai
Ibarra Industrialdea, 24 • 48300 GERNIKA-LUMO • Bizkaia
Telf: 94-625 22 07 - 94-625 05 27 • Fax: 94-625 27 11

Bigarren **azala**

Etxea gozotu eta etxean gozatzeko jaio ziren alfonbrak. Baina, era berean, ezinbesteko apaingarri ere badira. Eta estilo eta gustuei erantzunez, merkatuan alfonbra ugari aurki daitezke. Gainera, oso funtzionalak ere badira. Binilozkoak, adibidez, oso aproposak dira bainugelarako eta ezkaratzerako, irristagaitzak direlako. Ez hori bakarrik: joera ere badira, jutekoak modura, azken horiek zuntz naturalekoak, ekologikoki sustengarriak, ekonomikoak eta erraz garbitzekoak. Bestalde, gogoratu alfonbra bat aukeratzean komeni dela kontuan hartzea non ipini nahi den. Horregatik, esate baterako, egongelarako kotoizkoak dira onenak; zuntzezkoak, igarolekuetarako; eta kilims eta jarapak, logeletarako, erraz garbitzen dira eta.

Espazio **zabalen** alde

Nahiz eta Euskal Herriko etxeetan zabalik dauden sukaldeak ohikoak ez diren, 2021ean, norabide aldaketa bat egon zen joeretan. 2022an bide berdinetik jarraituko da; sukaldeak egongelarekin eta jangelarekin batu nahi dira.

Espazioa txikia denean, ideia ona da sukaldea zabalik uztea. Jasangarritasuna ere garrantzitsua da etxeetan, sukaldeetan bereziki. Material naturalak eta ekologikoak bilatzen dira. Horregatik, sukaldera teknologia berriak gehitzen dira.



Antolaketari dagokionez, joera izaten jarraituko dute office espazioek. Garrantzitsua da egunero modu informal batean jateko txoko bat izatea, sukaldeko gainontzeko atalez bereizita. Marmolak ere modan egoten jarraituko du. Natural izan edo artifiziala, harri honek naturaltasuna ematen dio sukaldeari, baita dotorezia eta modernitatea ere. Badirudi joera hau ez dela amaituko. Duela urte batzuk heldu ziren beltz koloreko txorrotak, eta geratzeko heldu dira. Tradizionalak baino originalagoak dira, sukalde garaikideentzako ezin hobeak. Agur esan dutenak distira handiko armairuak dira; garbitzeko askoz zailagoak dira.

2022an, akabera matea duten sukaldeko altzariak dira joera, kolore ilunetan zein zurian. Lauzak dira inoiz modaz pasako ez direnak. Hori bai, ohiko formatuetatik eta azaletatik alde egin nahi da, laukizuzenak eta lauak ez direnak erabiliz.

Etxetresna elektrikoak ere gero eta gehiago integratu nahi dira sukaldeko gainontzeko elementuekin. Helburua da bateragarritasun bat lortzea, dena batera joatea. Bide beretik, kolore bakarraren aldeko erabilpena nagusituko da, batez ere, kolore ilunena. Atzean geratu da kolore ezberdinak erabiltzen ziren sasoia. Sukalde tradizionaletan ez bezala, sinpletasuna bilatuko da, hor baitaude jasangarritasuna eta erabilgarritasuna.

Aire libreko *begiratokiak*

Etxebizitzetako gune preziatuenen artean jarraitzen dute espazio irekiek. Balkoiek eta terrazek aire libreaz gozatzeko aukera ezin hobea eskaintzen dute, eguraldia lagun denean. Naturatik gertuago sentitzeko modua.

Nola jarri landareak balkoi txiki batean

Naturan murgiltzen lagunduko digute landare eta loreek. Horiek jartzeko, garrantzitsua da balkoiaren edo terrazaren orientazioa kontuan izatea, tenperatura altuetarako egokiak izan daitezen. Zalantza gabe, alaitasunez jantziko dituzte etxebizitzako espazio irekiak.

Pribatutasuna nola izan

Intimitatea lortzea ez da arazoa gaur egun. Era askotako babes estalkiak eskuratu daitezke, dirutza gastatu behar izan gabe: banbu, plastiko, olana.... Eguazkiarengandik babesten duten babes pantailak ere aurki daitezke.

Espazio txikietarako kanpoaldeko sofak

Sofak dira etxeko erregeak, eta balkoi eta terrazetan ere izan daitezke, leku nahikoa izanez gero. Kanpoalde lasaiak lortzeko pieza baliagarriak izan daitezke sofa txikiak, eta horiek bezala, hamaka, etzaulki eta erlaxatzeko beste piezak.

Terrazetan nagusi diren tonuak

Betiko urdina eta berdea mantentzen diren tonuak dira. Horiekin batera, tonu mediterranearrak eta tropikalak dira joera. Dena den, denboraz gaindiko tonu erlaxagarriak bilatuz gero, krema koloreak ez dizu hutsik egingo. Zuria ere, zikinagoa izan arren, hor dago beti, zuntz naturalekin lagunduta.

Altzari tolesgarriak eta iraunkorrak

Zuntz naturalekin egindako altzariak beti dira apustu segurua, barrualdean zein kanpoaldean. Material berdinekin egindako lanpara, alfonbra, saski edota loreontziz lagunduta, falta ezin diren piezak dira. Terrazen eta balkoien tamainaren arabera, dena den, beharbada aulki eta mahai tolesgarriak aukera hobea izan daitezke. Denboraldi amaieran, gordetzeko aukera ematen dute.

Ze material eta koloreko altzariak aurkituko ditugu denboraldi honetan?

Ratan natural edo sintetikoz egindakoak, altzairu, aluminio, altzairu herdoilgaitza, egurra, erretxina edota sokadun altzariak. Turkesak, hori distiratsuak eta terrakotak dira joera, argia eta alaitasuna gehitzen duten koloreak.

Eguzkia sartzen denean, nola argiztatu

Eguzkia ezkutatu eta gaua heltzen denean, giro magikoa sortzeko unea heltzen da. Kanpoko dekorazio argiztapenarekin lortuko dugu hori. Balkoi txiki eta terrazak argiztatzeko aukera ugari daude. Girlanda LED argiak dira aukera bat, barandan edota hormetatik zintzilik jarri daitezkeelako. Pilekin funtzionatzen duten kanpoaldeko lanparak eta eguzki lanparak ere badaude; azken horiek dira aukerarik merkeena eta ingurumena hobetoen zaintzen duten aukera.

Gerizpearen babesean

Urteko hilabeterik beroenetan, aire libreko espazio kuttunak gerizpe egokia izan behar du. Nola? Toldu, pergola edota eguzkitakoekin.

B d B

URRESTI

Eraikuntzan espezializatutako denda

Duela **50 urte** baino gehiagotik erreferentzia gara eraikuntzako materialen, zeramikaren eta bainurako osagarrien salmentan

Bisitatu gure
ZERAMIKA
ERAKUSKETA

BILTEGIA: Landabaso B Pol. Ind. 6 eta 7 - 48370 BERMEO (Bizkaia) • T. 946 882 152
ERAKUSKETA: Arresi 17 behea - 48370 BERMEO (Bizkaia) • T. 946 187 765
urresti@grupobdb.com **www.grupobdb.com**

Berdea, 2022ko aukera

Kolore berdea, kurbak dituzten diseinuak eta material naturalak joera dira 2022ko egongeletan, areto eroso, iraunkor, natural eta dinamikoak lortzeko.

Ehunetan, esate baterako, tonu leunak dira nagusi, giro lasaiak sortzeko, arrosak, urdinak eta batez ere berdeak. Gelei bake eta ongizate sentsazioa ematea da helburua. Kolore horiek eta batez ere berdea asko eramango da ehunetan, baina baita altzarietan ere.

Sabai eta hormetako tonu neutroek (zuriak, beixak eta grisak) ere aukera nagusia izaten jarraituko dute 2022an, nahiz eta aurten protagonismoaren zati bat kolore biziagoekin partekatu beharko duten. Kolore bizi horiek egongelako horma batean nagusituko dira. Helburua da gune hori nabarmentzea, eta azpimarratu nahi den horma hori jantokikoa, sofaren atzekoa, lan-eremukoa... izan daiteke.

2022an, areto modernoak ez dira erabat irekiak izango. Jangela eta sukaldea bateratuta ikusiko ditugu, baina argia pasatzen uzten duten eta espazioei zabalera kentzen ez dieten bereizketa diskretu eta estetikoekin. Aurten kristalezko itxiturek puntuak irabazi dituzte. Berritasuna da beltzak izateari uzten diotela eta tonu argiagoetan aurkezten direla, zuriz edo egur itxurako beix kolorean.

Egongelak apaintzerako orduan, arrakasta handia izango dute marmolak eta urre koloreko apaingarriek. Kontsoletan, apalategietan edo mahai osagarrietan ikusiko dira.

Lanparei dagokienez, 2022 lanpara esekien erregealdia izango da. Eredu desberdinak daude: batzuek zuntz naturalekoen alde egiten dute eta beste batzuek XXL eskultorikoen alde. Hori bai, kolore leun eta argiak izango dira nagusi. Bestalde, konektatutako argiztapena ere joera izango da, egunaren arabera argiaren kalitatea eta intentsitatea egokitzeko.

Egurra, zuntza eta zeramika indarrez sartuko dira, egongela jasangarriagoak izango dira-eta joera. Horrela, artisautzak gero eta protagonismo handiagoa du. Eta altzarien joera jasangarri horrekin jarraituz eta jarlekuetan 2021etik datorren joerari eutsiz, ardi-narruzko ehunak eta belusa finkatzen dira, baina landuagoak. Zuntz txirikordatuek ere protagonismoa hartzen dute, jutea edo zumea sartuko dira aretoan, baina akabera dotore eta landuekin.

Mahai borobil eta obalatuen aldeko apustua ere indartsu dator. Orokorrean, altzari bihurgunetsuei emango zaie lehentasuna. Sofak, pufak, mahaitxoak edo mahai osagarriak ertz borobilduagoak izango dituzte, espazio dinamikoak lortzeko. Kurbak nagusituko dira elementu arkitektonikoetan ere. Ateak eta leihoak arku formak hartzen dute, espazioak hobeto komunikatzeko.

Aurtengo beste joera bat materialen nahasketa izango da: ehunduraz margotutako paperez estalitako hormak eta materialen nahasketa ikusiko dira aldi berean. Larrua ere modan egongo da berriro ere, sofa, aulki, puf, besaulki, apaingarri eta baita kuxinetan ere.

Ehun eta landareen bidez naturarekiko konexioa ere sustatuko da. Naturarekiko lotura hori pinturaren bidez ez ezik, landare-ehunen estanpatuen eta landareen presentziaren bidez ere ikusiko da.

2022ko beste joera bat terrazak, patioak eta balkoiak egongelan integratzea da, espazioari jarraitutasuna emateko, kanpoaldea barrualdeari erantsiz.

Loreak itzultzen dira iraganaren eragina berreskuratu eta retro vintage estilo polit bat lortu asmoz. Naturalak ikusiko ditugu, baina baita ehunetan eta paper margotuetan ere, denboraldi honetako ezinbesteko bat izango dira.

Etxean ere eroso lan egiteko

KONFINAMENDUTIK, ETXETIK LAN EGITEN DUTENEN KOPURUA ASKO IGO DA.

Eta lana hasteko eta amaitzeko ordutegia mugatzeaz gain, oso beharrezkoa da etxean horretarako lekua gordetzea. Baina beti ere ez da posible toki finko bat egokitzea. Izan ere, batzuetan, lanerako ezezik, beste erabilera batzuetarako ere izango da espazio hori. Dekoratzaileek eta barne-diseinatzaileek irizpide hauek jarraitzea gomendatzen dute:

- Gelaren funtzionamendua aldatzen ez duen txoko bat aurkitzea.
- Dekorazioarekin bat datozen altzariak aukeratzea.
- Apaingarriak kontuan hartzea.
- Piezak koordinatzea.
- Argi naturala bilatzea.
- Gainera, energia positiboa erakarri eta askoz ere produktiboagoa izan nahi baduzu, feng shui teknikak aplika ditzakezu lan-eremuan.

"BEZEROA ETXEKOTZAT SENTITZEA BILATZEN DUGU"

IOANA ETA NADIA GONZALEZ
GONZALEZ DEKORAZIOA

Joana eta Nadia Gonzalez ahizpek urteak daramatzate familiako dekorazio negozioagaz, baina egungo teknologietara moldatu dute, eta, egun, etxegintza zerbitzu integrala eskaintzen dute.

Zenbat urteko eskarmentua duzue etxegintzaren alorrean?

Duela 85 urte baino gehiago abiatu zuen negozioa gure aitonak, eta, ostean, gure gurasoak ere ibili ziren; beraz, gu hirugarren belaunaldia gara. Etxetik datorkigun zerbait denez, ahalik eta zerbitzurik hurrekoena eta atseginena ematen saiatzen gara, bezeroa ere etxekotzat sentitu dadin.

Ze produktu edo zerbitzu azpimarratuko zenukete zuon eskaintzatik?

Etxegintzaren barruan, gure zerbitzua hasieratik amaierara arteko integrala dela azpimarratu gura dugu: bezeroak ideia bat duen momentutik hori gauzatu arte laguntzen diogu, eta baita ostean ere. Bilatzen duena 3D bidez irudikatu, eta, irudi horretatik abiatuta, xehetasunak fintzen ditugu. Dekorazioaz gain, etxegintzaren beste ertzak ere lantzen ditugu, adibidez, diseinua, elektrizitatea, osagarriak, margotzea, textilak... Behin lanak eginda, bezeroak kexaren bat badu, ez dugu inongo arazorik laguntzeko, urteak pasata bada ere.

Zerk desberdintzen zaituzte gainontzeko negozioengandik?

Produktuak. Merkatuko mailarik goreneko produktuak ditugu, izan altzariak, textilak edo bestelakoak. Izan ere, urte asko dira ekoizleekin lan egiten dugunez gero, eta horrek zuzeneko harremana izatea ahalbidetzen digu bai ekoizleekin, bai bezeroekin, eta bitartekari lanak egiten ditugu. Halaber, esklusibotasuna ere badugu, alegia, gure produktuak ezin dira beste inon aurkitu.

Berritasunik baduzue aspaldion?

Bai. Batetik, bete-betean sartu gara sukaldeekin lan egitera, eta maila altuan gaude jada. Bestetik, gure proiektua aurkezteko bide berrien inguruan lan handia egin dugu: webgune berria sortzen gabiltza, eta sare sozialetan ere gehiago murgilduko gara.

GONZALEZ DEKORAZIOA

San Juan kalea, 11
GERNIKA-LUMO
94-625 04 82
proyectos@gonzalezdecoracion.es
gonzalezdecoracion.es

*Eraberritze*etan kontuan hartu beharrekoak

Eraberritze bat hasi eta etxean gremioak sartu baino askoz lehenago, arkitektura eta interiorismo proiektu zehatz bat eduki behar da, bertakoen premia guztiak jasota. Proiektuan doituta agertuko dira espazioak eta materialak eta egon daitezkeen arazoak. Obra estudio batekin kontratatzen bada, arkitektoak edo barne diseinatzaileak obrara bisitak egingo ditu, eraikuntza-enpresarekin zalantzak argitzeko. Hain zuzen, obra egiten ari den bitartean eta bezeroak jaso arte, ardura lanak egiten ari den eraikuntza enpresarena da, eta aldaketarik balego, horrek prezioak aldatzea dakarkion argitu beharko dio. Normalean, gremio hauek parte hartzen dute etxeko lan batean: igeltsero, iturgin, elektrikari, arotz, arotz metaliko, eskaiolista eta margolariek.

gakoak
INTERIORES

> PROIEKTU BAKOITZA BAKARRA ETA DESBERDINA DA GURETZAKO

Gakoak hurbiltasunetik sortutako dekorazio eta barne diseinu tokia da. 2008 an jarri zuten martxan, eta hurbileko hornitzaileekin lan egin, eta jasangarritasuna bilatzen dute beraien diseinuetan..

Hamalau urteko esperientzia daukazue etxegintza sektorean. Zer eskaintzen diozue bezeroari?
Barne diseinu proiektuak egiten ditugu, baita dekorazio proiektuak ere. Mimoz egindako erreformak egiteaz arduratzen gara. Horrez gain, etxe guztia janzteko altzarien eta hornigarrien salmenta (sukalde eta komunak barne) ere egiten dugu.

Zerk bereizten du Gakoak?
Bezeroekiko hurbiltasuna eta jasangarritasunari ematen diogun garrantziak bereizten gaitu. Era berean, esku artean daukagun proiektu bakoitza «bakarra eta desberdina» da guretzako. Maite dugu gure lana, eta hori gure proiektuetan nabarmentzen da. Barnetik lan egiten dugu. Proiektuak ilusioz bizi ditugu.

Gautegiz Arteagan dagoen Etxelaia zuek jantzi zenuten. Zer suposatu du zuontzat lan horrek?
Proiektu oso polita eta esanguratsua izan zen guretzat. Arrakasta handia izan zuen gure lanak, eta gaur egun ere kritika oso onak izaten jarraitzen du.

Zein beste proiektu nabarmenduko zenukete?
14 urtetan proiektu ezberdin asko egin ditugu. Etxebizitzetan esku-hartze txikiak zein erreforma handiak, familia bakarreko etxeak, baserriak, bulegoak, tabernak, liburutegiak eta abar diseinatu ditugu edota horien dekorazioaz arduratu izan gara. Proiektu ia guztietaz gogoratzen gara, guztiak guretzako bereziak direlako. Bezeroak pozik ikusteak, urteetan guregana etortzen jarraitzeak eta bere ingurukoak guregana ekartzeak poztasun handia ematen digu.

ERREFORMAK PROIEKTUAK DEKORAZIOA

GERNIKA-LUMO
94-625 05 16
interiores@gakoak.com
www.gakoak.com

Atsedenerako gelak

Logela etxeko tokirik garrantzitsuena da, bertan hartzen baitugu atseden. Izan ere, kontuan hartu behar da lo egitea funtsezkoa dela eguneroko funtzionamendurako: ezinbestekoa da osasun ona edukitzeko. Horrenbestez, atsedenerako diseinatuta egon behar da. Horregatik, erosotasunari eman behar zaio lehentasuna. Nolanahi ere, logela lotarako gela baino gehiago da: santutegi pertsonal bihur daiteke, jarduera gogokoenak egiteko. Zentzu horretan, pertsona askok dedikazio handiz apaintzen dituzte eta kontu handiarekin aukeratzen dituzte tapiz paperaren kolorea eta mota, solairurako estaldura, altzariak eta atea, apaingarriak eta elementu guztien antolamendua alde batera utzi gabe, emaitza erabat kalkulatua lortzeko.



AUKERAK, GUSTUAK BESTE

Logeletan oso modan jarri da grisa, tonu leun eta ertainetan zein bizietan, ia beltzean; sofistikazio puntua ematen die. Nolanahi ere, logelak atsedenerako leku izanik, normalean tonu neutroak erabiltzen dira dekoratzeko, hala nola, zuria, bere ñabardura guztiekin, beixa edo hondar kolorea. Gainera, espazio handiagoaren sentsazioa ematen lagun dezakete. Dena dela, ez dira aukera bakarrak bakea eta lasaitasuna transmititzeko: tonu hautseztatuak ere indartsu sartu dira joeretan: berdeak, arrosak, grisak edo urdinak. Muralek zein paper pintatuak ere lagundu dezakete horretan: paisaia atsegin batekin, adibidez. Bestalde, kanpoaldearekin lotuta egoteko gogoa dagoenez, naturarekin lotzen gaituzten ehunak eta altzariak askoren aukera dira.

Gomendioak, aurrezteko

Argindarraren eta gasaren tarifak goia jo dute, eta inoiz baino garrantzi handiagoa du energia kontsumoa murrizteko neurriak hartzeak.

Nola aurreztu genezake energia etxean?

1. ETXEBIZITZA ISOLATU

Energia kontsumoa efizienteagoa izan dadin, ezinbestekoa da leihoetan eta ateetan kontzentratzen diren aire ihesaldiak identifikatu eta kontrolatzea. Batzuetan aireztapen hodietan eta ke erauzgailuetan gertatzen dira. Ihesaldi horiek profesionalen eskuetan utzi edota konponbide erraza dutenak guk geuk konpondu ditzakegu. Pintura termikoak, espuma isolatzaileak, beirazko lana isolatzaileak, kortxoa, lana mineralak... material asko daude etxebizitzetan energia kontsumoa murrizten lagun gaitzaketenak.

2. BONBILLAK ALDATU

Aldaketa errazenetako bat da etxebizitzako bonbillak aldatzea. Halogenoek LED edo kontsumo baxuko bonbillek baino hamar aldiz energia gehiago kontsumitzen dute. Kontsumo baxuko bonbillak garestiagoak dira, baina beraien bizitza 50.000 ordu gehiagokoa izan daiteke. Inbertsio ona dira.

3. APARATUAK DESKONEKTATU

Erabiltzen ez dauden aparatu elektriko guztiak deskonektatu egin behar dira. Telebista, musika aparatua, ordenagailua edo kafetera deskonektatu gabe uzten ditugun aparatuak dira. Eta standby moduan daudenean, energia kontsumitzen jarraitzen dute, nahiz eta itzalita egon. Gauez, etxetik ateratzen garenean edo erabiltzera ez goazenean deskonektatzeak argindarraren fakturaren murrizketa eragingo du.

4. DUTXA MOTZAK HARTU

Dutxa lasai garri eta luzeak hartzea tentatzailea bada ere, 7 minutu nahikoa dira garbitasun osoa lortzeko. Dutxan 20 minutu egoteak ehunka euro suposatuko ditu urteko fakturan. Ohitura txar hori zuzentzeko, dutxa kronometratzea gomendatzen da. Egin daitekeen beste gauza bat da xaboia eman bitartean txorrota ixtea. Gaueko fakturazioa kontratatuta izanez gero, dutxa gauez hartzea da aurrezteko beste modu bat.

5. ARGIAK ITZALI

Aurrezteko modu errazena argiak itzaltzea da. Argindarrak gastu energetikoaren %20 suposatzen du etxebizitzan. Gela batetik irten bakoitzean argiak itzaltzeak eta beharrezkoa denean baino ez pizteak aurrezten lagunduko digu.

6. UR HOTZAREKIN GARBITU

Arropa garbigailua da gehien kontsumitzen duenetako bat. Ur hotzarekin garbitzea gomendatzen da, arropa garbitzeko xaboiek tenperatura baxuetan ere ondo kentzen dute-eta zikina. Modu horretan, gainera, koloreak eta oihalak hobeto zainduta leudeke.

7. UR BEROGAILUAREN TENPERATURA JAITSI

Ur berogailuen bataz besteko tenperatura 60 gradukoa izan ohi da sarri, baina horijaisterik badago. %40ra jaitsiz gero, dutxatzean ez dugu nabarituko eta dirua aurrezten lagunduko digu.

8. ARGINDAR TARIFA EGOKIA KONTRATATU

Argindar kontsumoa ez da berdina etxebizitza guztietan. Egunez ala gauez egin kontsumoa, horren araberako tarifa kontratatzea gomendatzen da. Aurrezten lagunduko digu ahalik-eta tarifa egokituena izateak.

AMÄIKA

BARNE DISEINU ESTUDIOA

www.estudioamaika.com

"PROIEKTU BAKOITZERAKO FUNTZIONALTASUNA, ESTETIKA ETA BANAKOTASUNA BILATZEN DUT"

NAGORE ZUBILLAGA

Proiektu bakoitza bezeroentzako beren beregi diseinatzea du helburu Nagore Zubillagak. Artisauen lana sustatzen du, eta antzinako pieza eta teknika tradizionalak diseinu modernoekin uztartzen ditu.

Zenbat urteko esperientzia duzu barne diseinuan?

IADEko Barneko Dekoratzaile ikasketak amaitu eta marrazketa eta pintura ikasketekin osatu ondoren, 20 urtetik gorako ibilbide profesionaleko esperientzia dut, Getxo eta Bilboko bi estudio nabarmenetan lanean aritu bainaiz, nazio eta nazioarte mailako proiektuetan. Dekorazio proiektuak egiten ditut, baita etxebizitzak, bulegoak, hotelak eta merkataritza-lokalak partzialki eta osorik eraberritzeko proiektuak ere. Horietarako arotzeria eta altzariak diseinatzen ditut, baita kasuan kasurako berariazko eraikuntza eta dekorazio diseinuak prestatu ere.

Zerk bereizten zaitu konpetentziatik?

Artisauen lanaren aldeko apustuak, altzariak bezeroentzako beren beregi diseinatzeak, antzinako piezen eta teknika tradizionalen alde egiteak eta ehun eta material naturalak erabiltzeak. Horiek guztiak uztartzea bateragarria da egungo diseinu modernoekin. Uste dut eskuz egindakoak hartu duela garrantzia garai berri honetan. Herritarrak material naturalen eta iraunkorren aldeko apustua egiten ari dira, bai dekorazio elementuetarako, bai eraikuntza elementuetarako. Lehengoratu daitezkeen materialak dira, eraberritu eta gero beste bizi berri bat izan dezaketenak; hori ahalbidetzen du material horien kalitate onak.

Zein da zure produktu edo zerbitzu erakargarriena?

Proiektu bakoitzerako funtzionaltasuna, estetika eta banakotasuna bilatzea, zalantzarik gabe. Neurrira egindako diseinuekin lan egiten dugu beti, denboran iraungo dutela pentsatuz, modako eta serieko produktua alde batera utziz eta horiek egiteko esklusibotasunaren alde eginez.

Dekorazio proiektuak margolanak bailiran erakusten dituzue.

Bezeroek hala nahi izanez gero, modu esklusiboan akuarelaz, arkatzez edota tenperen bidez egindako diseinuen marrazkiak erakusten ditugu.

NAGORE ZUBILLAGA
INTERIORISMO

Andra Maria Kalea z/g
GERNIKA-LUMO
650 488 583
94-424 47 10
estudio@nagorezubillaga.com

Sentitzeko eginak

Sintetikoak, naturalak, nobleak... denetariko materialak aurki genitzake barne dekorazioaren munduan. Altzari, horma, sabai, zoru... bakarka edota zurrunbiloan, nahastuta, elkarri laguntzen, elkar aberasten. 2022an material ugari izango ditugu aukeran, etxebizitza nahieran apaintzeko.

ZUNTZ NATURALAK

Material naturalek gero eta harrera hobea dute. Gero eta hobeto egokitzen dira, estiloa edozein izanda ere. Gainera, berotasuna ematen diete etxebizitzei, espero eta hain beharrezkoa den erosotasuna. Ratana, kotoi gasa eta jutea dira aurtengo joerak.

FORJA

Material gogorra eta pisu gutxi duena da, denboran irauten duena. Beste material batzuekin alderatuta, egurra kasu, arintasuna ematen die altzariei, eta horrek egoki egiten du espazio txikietarako. Burdin forjatuko oheburuak modan daude.

METALA

Art Deco joera itzuli zenetik, urre koloreko objektuak lehen lerroan daude, eta datozen urteetan ere egongo dira. Urre koloreko ispiluak, urre koloreko argia ematen duten lanparak eta pareteko

lanparak... urre koloreko metalak argitasuna emango die espazio ezberdinei. Neurrian erabiltzea gomendatzen da, gehiegikerietan ez jausteko. Brontzea ere joera da, eta geldika-geldika itxura industriala ematen duten materialak nagusitzen doaz: altzairu beltza edota metal leundua. Latoia, nikel landua eta zilarra ere bueltan daude barne dekorazioan.

BELUSA

1970eko hamarkada modan egonda, belusa ere modan dago ezinbestean. 2022an, batez ere negu-udazkenean, leku guztietan ikusiko dugu, eskaintzen duen berotasun eta lasaitasunagatik. Mantak, gortinak, kuxinak.... belusaz jantziko dira, negua goxo-goxo igarotzeko.

BANBUA, BEIRA, BUZTINA...

Zurarekin, burdinarekin eta harriarekin batera, banbu, ratan, sisal, kotoi, lana, paper, beira, buztin eta metalekin egindako altzariak ere aurkituko ditugu. Barne dekorazioa dotoretzen eta aberasten lagunduko dute.

EGURRA

Azken urteetako joeratik aldenduz, altzari ilunak indarra hartzen doaz, sasoi bateko glamour retroa bueltan den honetan. Egurrak modan jarraitzen du, batez ere metalarekin eta beirarekin nahasita, diseinu baliotsu eta originalak lortuz. Egurrarekin batera, buztina eta zumitza ere joera dira, eta marmola ordezkatzen joango dira apurka-apurka. Gelei izaera ematera datoz.

TERRAZOA

Barne dekorazioan iaz hasi zen terrazoa lekua irabazten. Eta aurten, diseinuan, grafikoetan eta arkitekturan eztanda egin du.

TERRAKOTA LAUZAK

Zoruetan eta hormetan berotasuna eta goxotasuna eskaintzen duten materialak dira terrakotako lauzak. Tonu zuri edo neutroei lekua irabazten hasiko dira. 1980ko hamarkadan ez bezala, akabera mate naturala izango dute, eta zoru eta paretak estaltzeko eta janzteko erabiliko dira. Tximiniak janzteko aukera ona ere badira.

HORMA ARTISTIKO EDO BOTANIKOAK

Artelanak diruditen margotutako paperak ere joera dira. Akuarela pintzelkadekin margotutako lore handiak aukera ona dira hormak apaintzeko. Naturarekin bat eginez, gelei izaera handia emateko aukera ematen dute, ezbairik gabe.

"NIRE NAHIA ETXEBIZITZAREN PROBETXU HOBERENA ATERATZEA DA, BEZEROEN BEHARRIZANETARA EGOKITUTA"

ASIER OLAETA EGUREN
BARNE DISEINATZAILE ELKARTEKIDE ZK. 0303BI

Zenbat urteko esperientzia daukazu etxegintza sektorean?

2000. urtean hasi nintzen barne-diseinuan lanean; bulego txiki bat zabaldu nuen Gernikan. 2003an Bilboko estudio batean hasi nintzen lanean, nire esperientzia zabaltzeko asmoarekin, eta 2009an berriz ere nire kabuz lan egiten hasi nintzen Gernikan, beste estudioetan jasotako jakinduria aplikatzeko. Ordutik, alor berdinetan lanean jarraitzen dut, beti ere, gauza berriak ikasiz, nire esperientzia egunez egun berritzen.

Zer eskaintzen duzu?

Proiektu baten kudeaketa integrala eskaintzen dut: etxebizitzaren neurketa, plano teknikoak eta bezeroen gustuen araberako berriztatzearen aukera ezberdinen (distribuzio ezberdinen) planoak, instalazioen planoak (elektrizitatea, iturgintza,...), obraren aurrekontua eta gremioen arteko koordinazioa, lan osoa bukatu arte. Barne Diseinuan Graduatua eta Passivhaus Teknikaria naizenez, jakintza hauek aplikatzen saiatzen naiz proiektu guztietan.

Beraz, bezeroentzat onuragarriena dena bilatzen duzu.

Bai, arreta pertsonalizatua ematen dut, bezero bakoitza bakarra da. Bezeroekin harreman zuzena, hurbila edukitzea gustatzen zait, beraien gustuak ezagutzeko eta nire lana beraien izaerara egokitzeko. Nire ardura nagusia ondo lan egitea da, bezeroak gustura geratu daitezen eta egindako lana bukatzean pozik egon daitezen. Egindako lanagatik bezeroak zoriontzea da gozamen handiena.

Proiektuak diseinatzean zer bilatzen duzu?

Proiektua diseinatzen hasten naizenean, lehenik eta behin, nire nahia etxebizitzaren probetxu hoberena ateratzea da, hau da, metro koadroko probetxurik hoberena ateratzea, bezeroen gaur egungo beharrizanetara egokituta, etxebizitza funtzionala izateko. Etxebizitzen eraginkortasun energetikoa hobetzea eta energia berriztagarriak erabiltzea ere bada nire helburua.

barne diseinua_berritze lanak
olaeta

Juan Kaltzada 12
GERNIKA-LUMO
656 745 004
olaeta.asier@gmail.com

ZARRA
BEITIA
ARKITEKTOAK
www.zarrabeitia.eu
Etxebizitza bioklimatikoak

Ondare berreskurapena_Barne diseinua_Eraberritzea



San Kristobal plaza 10 behea, Gernika-Lumo
info@zarrabeitia.eu 946023956 / 652773395

Bainugela ere espazio erakargarri

Iturgintza / Berogintza / Berriztagarriak

www.iturbero.com

Iturbero

Iturgintzako eta berokuntzako zerbitzu integralak

Mendata
Bulegoa
Olabe auzoa, 32 esk.
48382 MENDATA

Gernika-Lumo
Biltegia
Errekazarra kalea, 7
48300 GERNIKA-LUMO

Zornotza
Biltegia
Landatxu kalea 2, behea
48340 ZORNOTZA

Kontaktua
94-625 39 62
636 37 04 83
666 84 05 88
iturbero@iturbero.com

Bainugelak garrantzia hartu du urteen joan-etorriarekin: higienerako espazioa baino gehiago bilakatu dira. Hori dela eta, etxeko beste edozein tokitan modura, bainugelan ere oso kontuan hartzen da diseinua eta apainketa.

Bainugela apaintzeko hainbat irizpide:

• Espazio txikietan: bainugela txikietarako, argi-puntu asko instalatu, eta gutxienez ispilu handi bat. Hegaldun altzariak oso aproposak dira.

• Koloreak: zuria eta krema bogan daude. Zuria oinarri hartuta, beste tonu batzuk sar daitezke, esaterako, txokolatea, kobre kolorea, tostatua edo beltza.

• Materiala: estaldurarako, pintura, portzelanikoak, zura eta paper margotua aukeratzen dira batez ere. Azken joera zeramikazko egurra erabiltzea da.

• Bainua suitean: Oso erosoa da bainugela logelan integratzea.



ESFORTZU TXIKIAREKIN, EMAITZA EDERRA

Oso esfortzu txikiarekin eta diru-kopuru handia ordaindu beharrik gabe, itxura berria eman diezaiokezu zure komunari.

Alda ezazu ispilua: aldaketa nabariagoa izan dadin, aukeratu ezazu markoduna lehen marko gabea bazeneukan edo alderantziz.

Luminariak: LED bonbillak erabiltzen ditu. Abantailen artean, kontsumo txikia daukatela (bonbilla tradizionalek baino %90 gutxiago kontsumitzen dute) eta bizitza erabilgarri luzea (50.000 ordukoa ere izan daiteke).

Osagarriak: eskuiletarako, eskuoihaletarako, gurpil-euskarrietarako edo zuntz-saskietarako ontziak. Jarri kandela apaingarri batzuk edo flasko usaintsuak.

Ehunak: eskuoihalak agerian badaude, apaingarri bihur itzazu.

Aukeratu modako koloreen artean. Egin gauza bera bainugelako alfonbratxoarekin.

ZUREZKO OSAGARRIAK, APAIN ETA JOERA

Nahiz eta zurezko osagarriak modatik sekula pasa ez, azken boladan indar handia hartu dute, besteak beste, edozein klimatara eta estilotara egokitzen direlako, arinak eta estetikoki erakargarriak direlako eta sentsazio naturala ematen dutelako.

Interiorismoan puri-purian dago estiloen nahasketa, eta horretan zura ezin hobeto moldatu da. Era horretara, merkatuan ohikoa bihurtzen ari da xehetasun modernistak harekin konbinatuta ikustea diseinuetan. Horrenbestez, zurezko bankuak, apalategiak, aulkiak, galanak, toalla euskarriak, biltegiratze altzariak eta eskailerak —apaingarriak bezain praktikoak— aliatu bikainak dira bainugela apain eta modernoa eduki nahi badugu. Hori bai: gogoratu zuraren erabilerak tratamendu berezia eskatzen duela eremu hezeetan, hala nola, bainugelan.

"AZKEN XEHETASUNERA ARTE LAN EGITEN DUT"

Etxeak bere osotasunean diseinatzen ditu Nora Interiorismok, erreforma osoak egiten ditu, eta ezkaratzei, egongelei edota logelei goxotasuna ematen die. Bezeroak etxean eroso sentitzea da bilatzen duena, eta horretarako, bezero bakoitzari egokitutako diseinuak egiten ditu.

2006az geroztik, lanean

2003an hasi zen etxeetarako detaileak saltzen, baina 2006an aurrerapauso bat ematea erabaki zuen, eskaera handia zegoelako eta bezeroek hala eskatzen zutelako. Etxe osoko erreformak egiteari ekin zion orduan, etxeetako diseinuak egiten lehenengo eta gremio ezberdinekin lanean gero. Hasieran ez zituen ezkaratzak egiten, horretarako beharrik ez zuelako, baina horri ere heldu zion, eta 2008az geroztik, gremio guztiekin lan egiten du.

Pergola bioklimatikoak

Etxeetako barne diseinuak egiteaz gain, pergola bioklimatikoak ere diseinatzen ditu Norak. Etxeari beste egongela bat gehitzen zaio pergolak eginez gero: «Etxeari ez daukan beste gela bat egitea da lorategian pergola bioklimatiko bat egitea. Gure klimara egokitutakoak dira, negu eguzkitsuak baina hotzak ditugulako eta pergoletan oso gustura egon daitekeelako; izan ere, argia eta berogailua izaten dute».

Berezitasuna: azken ukituak lantzea

Azken ukitura arte lan egiteak bereizten du Nora Interiorismo. Gai orokorrak kontutan izateaz gain, azken xehetasunei duten garrantzia ematen die. Detaileak zaintzea du gustuko: «Azken xehetasunera arte lan egiten dut, detaile txikiak ere kontuan izaten ditut».

NORA
INTERIORISMO

GERNIKA-LUMO
653 589 748
Don Tello kalea, 28
nora@norainteriorismo.com

Txikiak, ***izaera handikoak***

BATEZ ERE DEKORATZEKO DIREN ARREN, PRAKTIKOAK ETA FUNTZIONALAK ERE IZAN DAITEZKE.

Lehentasunez, hasi hauekin:

1.LANPARAK
Giroa sortu eta eraldatzen laguntzen dute. Gela bateko lau izkinetatik hirutan gutxienez lanpara bat egon behar da. Mahai gainekoetan, zura eta kristala konbinatu berotasuna eta ñabardura lortzeko.

2.EHUNAK
Ehunak aldatuta estilo guztia berritu ahal da. Tonu neutroetan aukeratu, eta material naturalekoak.

1.HORMAK APAINTZEKO KOADROAK ETA LAMINAK
Etxeko edozein txoko pertsonalizatzen dute. Pareta berean elementu ezberdinak konbina daitezke.

1.KUTXAK ETA SASKIAK
Gordetzeko eta antolatzeko balio dute. Jarri altzari baten gainean, armairu barruan, apalategian, erdiko mahaiaren azpian edo lurrean.

Ez ahaztu beste hauek....

1.MANTAK
Bai egongelan sofa gainean, bai ohean, plaid gisa. Mantek berotasun sentsazioa ematen dute.

1.KANDELEN ARGITAN
Hobeto taldekatuta erretilu baten gainean. «Erabateko deskonexioa» lortzen laguntzen dute.

1.DISEINUZKO AULKIAK
Jarri bat txoko batean edo estudioan, edo beste batzuk jantokiko mahaiaren inguruan.

1.EGUNEROKO BAXERA
Egin egun bakoitza berezi baxera polit batekin.

Landare usaintsuen dohainak

Barrualdeko landareak, usaindunak edo lurrinduak, aukera bikaina dira etxea apaintzeko eta usain txarrak arintzeko. Era horretara, landare usaintsuak eta barruko zuhaitzak inoiz ez bezala gailenduko dira 2022an, baina joera izaten jarraituko dute landare klasiko askok, hala nola, potoa, ficusa edo sansevieriak. Bestalde, hainbat landare sukalderako erabiltzen dira. Euretako batzuk kanpokoak dira eta beste batzuk barrukoak; eta ez dira gutxi sendabelar ere badirenak. Gastronomiarako landare aproposen artean, hor daude erromeroa, estragoia, menta, hierbabuena, aneta, albaka, salbia, perrexila, ezkaia, izpilikua, ereinotza eta martorria, erabilera ugaritakoak helburuaren arabera. Eta gogoan hartu desberdinak direla landare bakoitzaren premiak eta eskatzen duten arreta.



SANTOS -en banatzaile ofiziala
www.santosarriandi.com

KALITATEA ESKURA
ETORRI ETA IKUSI!
KALITATEA ESKURA

ARRIANDI
SUKALDE ETA ETXEKO ALTZARIAK

ABADIÑO • 94-620 26 56
Urbitarte poligonoa, 6 - 3. lokala
(Eroski aurrean)
abadiano@arriandi.com

GERNIKA-LUMO
• 94-625 07 85
Industria kalea, 13
abadiano@arriandi.com